



Zaldi aztiak Anari kantu bat irakatsi dio.


Zilo zilotxo

Zilo zilo zilotxo
zi za zi zizaretxo,
Zilo zilo zilotxo
zi za zi zizaretxo.

Zilo zilo zilotxo
zi za zi zizaretxo,
Zilo zilo zilotxo
zi za zi zizaretxo.

Sagarra janez gero
zer janen du amonatzok?
Sagarra janez gero
zer janen du amonatzok?

Sagarra janez gero
zer janen du amonatzok?
Sagarra janez gero
zer janen du amonatzok?






Zaldi aztiak Anari kantu bat irakatsi dio.

Xurxuri baten gainean

Manex Pagola

Xurxuri baten gainean txoriak
kantatzen du,
kantatzen du,
xurxuri baten gainean txoriak
kantatzen du biziari.

Xurxuri baten gainean txoriak
kantatzen du,
kantatzen du,
xurxuri baten gainean txoriak
kantatzen du biziari.



tx

txc

[tʃ]

tz

tz

[ts]



Mariorratzak Anari kantu bat irakatsi dio.

Tza tza tza

Tza, tza, tza, pasatzen dut erratza,

Tze, tze, tze, gela nabil garbitzen,

Tzi, tzi, tzi, dabantala dut jantzi,

Tzo, tzo, tzo, zikindu nintzen atzo

Tzu, tzu, tzu, tzun patzun, patzun, patzun.

Tza, tza, tza, pasatzen dut erratza

Tze, tze, tze, gela nabil garbitzen

Tzi, tzi, tzi, dabantala dut jantzi

Tzo, tzo, tzo, zikindu nintzen atzo

Tzu, tzu, tzu, tzun patzun, patzun, patzun.

K k K k

[k]


kukua



Ana eta zaldi aztia kantuz ari dira.

Oihanean nenbilen
ilundu zenean,
kukua kantuan
hasi zen gauean,
kuku, kuku, kuku, kuku.

Oihanean nenbilen
ilundu zenean,
kukua kantuan
hasi zen gauean,
kuku, kuku, kuku, kuku.





Kukuak Anari kantuak irakatsi dizkio.

Arri arri mandoko

Arri, arri mandoko
 bihar Garruzera**ko**
 etzi Harzparnera**ko**
 handik zer ekarri**ko**?
 zapata (e)ta gerri**ko**
 eraztun bat erhi**ko**
 boneta bat buru**ko**
 haiek norenda**ko**?
 ...-renda**ko**!!

Baserrian xakurra

Baserrian xakurra
 hasi da saing**a**,
 zaldia irrintzi**a**,
 gatua marra**a**,
 astoa arrantz**a**,
 behia marru**a**,
 denentzat janaririk,
 aitatxi**k** ez dau**a**.





Zaldi aztiak Anari olerki bat irakatsi dio.

Larrazkeneko altxorrak

Luixa Giltzu, 2009

Larrazken goiz batez, joan naiz oihanera
eta saski batean bildu ditut onddoak!

Larrazken goiz batez, joan naiz oihanera,
eta saski batean bildu ditut gaztainak!

Larrazken goiz batez, joan naiz oihanera,
eta saski batean bildu ditut hostoak!

Goxoak onddoak,
leunak gaztainak,
laranjak hostoak,
larrazkeneko altxorrak!





Zaldi aztiak Anari olerki bat eta kantu bat irakatsi dizkio.

Loretxo handia

Loretxo handia
lau urteko neska
liburu lodia
lurrera utzirik
loan sartua da
begiak hetsirik.
Ametsen mendira
badoa hegalka.

Loretxo handia
lau urteko neska
liburu lodia
lurrera utzirik
loan sartua da
begiak hetsirik.
Ametsen mendira
badoa hegalka.

Ole oleana

Ole oleana!

Ole ole ole ole
ole oleana!



Ole oleana

Ole oleana!

Ole ole ole ole
ole oleana!




Zaldi aztiak Anari olerkiak irakatsi dizkio.

Mendiz mendi

Mendiz mendi
dabil mandoa,
ikusirik mundua,
mendi bat,
bi mendi,
hiru mendi,
eta hor dabil.

Mendiz mendi
dabil mandoa,
ikusirik mundua,
mendi bat,
bi mendi,
hiru mendi,
eta hor dabil.




Margarita

Margarita,
beltzarana,
ile motza:
muxarra.

Maialen mindulin,
andere muxulin,
larru fin:
mertxika.

Mikel luze,
lepo mehe,
zango makal:
mandoa.



Margarita,
beltzarana,
ile motza:
muxarra.

Maialen mindulin,
andere muxulin,
larru fin:
mertxika.


Mikel luze,
lepo mehe,
zango makal:
mandoa.



Zaldi aztia eta Ana kantuz ari dira.



Biper eta tomate

Biper eta tomate
tipula du kalte,
barneko xixariek
atakatzen naute.



Biper eta tomate

tipula du kalte,
barneko xixariek
atakatzen naute.





Zaldi aztia eta Ana kantuz ari dira.

Lertsunak

Marijane Minaberri - Oskorri

Lertsuna lerro-lerro,
zeruan gora-gora,
hegoaldera behera,
badoa lerro-lerro.

Negua hor da, hor da,
kanpoan elur hotza,
su ondo bero-bero,
etxean bada, bada.

Lertsuna lerro-lerro,
zeruan gora-gora,
iparraldera gora,
badator lerro-lerro.

Lertsuna lerro-lerro,
jinen da gero-gero,
ekarriz goxo-goxo,
eguzki bero-bero.

Zapi zuria

Txirri, Mirri eta Txiribiton

Zapi zuri honekin
jolasten gara.

Orain alde batera,
gero bestera.

Zapi zuria aurrera,
zapi zuria atzera.

Zapi zuri honekin
jolasten gara.







Zaldi aztia eta Ana kantuz ari dira.

Buru belarri


Bolon bat, bolon bi,
 Anak xaramela jotzen dio
 baserriko behiari.
 Bolon bat, bolon bi
 ardi zuria belardian da,
 bazkatzen buru belarri.
 Betoz orain maldan beheiti
 behi eta ardi hori!



Ezkilaren kantua

Michel Labeguerie

Dilin, dalan, dalan,
 din-dan boieran
 dilin, dalan, dalan,
 din-dan boieran.



Dona dona katona

Dona dona katona
 sutondoan aitona
 lepotik behera kuttuna
 atera hadi kanpora
 neska edo mutil tuntuna.



Zaldi aztiak Anari olerki bat eta kantu bat irakatsi dizkio.

Pikondo ederra


Pikondo eder baten azpian
pausatzen da Tipo pailazoa.
Plast! piku bat erori zaio
buru gainera...
Akabo loaldi epela!

Go! hortik pasatzen da pottoka,
Pikuak goian dira, hau pena!
Tipo, piku batzuen bila igo da.
Bi gozozaleentzat, zer poza!

Pin, pan, pin,

Marijane Minaberri

Pin, pan, pin,
tiroak hil du lapin,
pin, pan, pin,
gaixoak ote du min?





Zaldi aztiak Anari olerki bat eta kantu bat irakatsi dizkio.

Oihanetik

Oihanetik oihu bat heldu da, kantu bat iduri du.

Beharbada basajaunak kantatzen du

otsoaren deitzeko!

Baina Ana lasai dago, **gakots** guti eskas zaio ipuinen kutxaren irekitzeko.



Otsoak eta Txanogorritxu

Xabier Lete

Otsoak jan ditu hamasei txerri,
ehun oilo, hogeit hamar ardi,
gosea kentzen badaki.
Horregatik Txanogorritxu
beldurtu da otsoekin.

Santxo

Santxo,
seme sendo!
Sasira erori
asunek ausiki
negarrik ez isuri.
Sabina,
zer santsana!
Sagar samina
saskitik hartu,
sakelari sartu...



Zaldi aztiak Anari olerki bat eta kantu bat irakatsi dizkio.

Xango-mango

Xango-mango

haurra nongo

ona bada etxerako

gaixtoa bada kanporako.

Baga biga

Baga, biga, higa,

laga, boga, sega,

zai, zoi, bele,

arma, tiro, pun!





Zaldi aztiak Anari olerki bat eta kantu bat irakatsi dizkio.

Jon eta Jenofa

Jon eta Jenofa onddoketa joan dira.

Jenofak laranja koloreko onddo bat

bildu du eta orain Jon jelos da.

Baina Jonek ere onddo ederrak atzeman ditu.

Biak etxera jauzika sartu dira
eta aitamekin jan dituzte.

Furra-furra

Xabier Amuriza - Natxo de Felipe

Furra-furra fandangoa,

hortxe duzu fandangoa

gure gustukoa.





Zaldi aztiak Anari kantu bat eta olerki bat irakatsi dizkio.

Buba ñiñaño

Buba, ñiñaño,
haurra dugu ñimiño,
lokartzeko gaixtoño,
atzartzeko aiseño...



Hiztegi jolastia

J. Ormazabal

Ez jarri hatxerik
etxeari
jarri leihoari
hatxe herriari eta
hiriari hatxe harriari.
Hatxerik ez orriari
ezta ere irriari.
Eta ez badakizu
letra hau non jarri
galdetu hiztegiari.